

«Lotsa galdu dut, eta gehiago onartu dut nire gorputza»

AINTZANE ARTOLA
BULARREKO MINBIZIA IZAN DU

Bularreko minbiziari buruzko zenbait ideia azalduko ditu, gaur, Tolosako kultur etxean, 18:00etatik aurrera, Laura Muelas antropologoarekin batera // 2

Ospitaleari buruzko argibideak eskatu dituzte alderdiek // 3

Eskualdeko hiru segalari, igandeko Sega-Sail Txapelketan // 7



AMEZKETA GERTATUTAKOAREN IKERKETA

Amezketako Udalak 36ko gerran eta lehen frankismoan gertatutakoaren inguruko ikerketa «sakona» egingo du, Aranzadi zientzia elkartearekin; Oroimen bulegoa zabalduko dute laster, informazioa eman eta jasotzeko // 5


IRATISAZAR

gorriti | martínez

San Frantzisko pasealekua 14, Tolosa

Tel: 943 650 192

www.gorritimartinez.com





IÑIGO TERRADILLOS

«Bular bakarreko titi-zorroak egin ditzaten eskatzen dugu»

AINTZANE ARTOLA BULARREKO MINBIZIA IZAN DU

Tolosako kultur etxean hitzaldia emango du gaur, 18:00etatik aurrera; bularreko minbiziaren zenbait ideia azalduko ditu, Laura Muelas antropologoarekin batera

Josu Artutxa Dorronsoro

31 urterekin bularretako batean tumore bat detektatu, eta gerora, bularreko minbiziaren ondorio fisikoei nahiz gaixotasunaren bueltako estereotipoei aurre egiten dihardu Aintzane Artolak (Tolosa, 1985), protesirik gabe bizitzeko hautuari gogor eutsiz. Ordutik aurrera, gainera, minbizi honen genero ikuspegiaz ohartzen hasi zen. Astelehenean izan zen Bularreko Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Eguna, eta Jabetze Eskolak toki berezia egin dio udazkeneko egitarauan.

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Ostalaritza. Zizurkilgo taberna batean zerbitzari bat behar dugu. Interesatuak deitu: 652 745 879.

Galdutakoak

Betaurrekoak. Tolosako lurre auzoan graduatutako betaurrekoak agertu dira. 608 580 490.

Zer moduz zaude, prozesu gogor eta luze bat igaro eta gero?

Bularreko minbizia guztiz sendatuta dagoela esan daiteke. Datorren urtean beteko dira bost urte tumorea detektatu zidatela, eta horrela jarraituz gero, medikuaren alta jasoko dut. Alde horretatik, beraz, pozik nago. Hala ere, arazo txiki batzuk izan ditut; eskuin besoan linfoma bat dut, noizbehinka besoa puzten zait, eta hori arriskutsua izan daiteke.

Bular oso bat eta besazpiko guruina kendu zizkizuten. Nola daramazu hori?

Egia esan, normaltasun baten barruan. Duela lau urte, gertatu zitzaidanari buelta gehiago ematen nizkion, baina gaur egun, bizitza arrunta egiten dut, arropari moldaketa txiki batzuk eginda.

Kalera kanpoko protesirik gabe irtendako lehen aldie-tan, lotsagabe sentitzen zinela zenioen.

Lotsa guztiz galdu dudala esango nuke. Eroso sentitzen naiz; fisikoki gehiago onartu dut nire gorputza, eta ingurukoek ere

onartu dute nire itxura. Lehen galdera gehiago izaten nituen: Nola irtengo naiz kalera? Zer pentsatuko dute nire itxuraz? Hala ere, gero ohartu naiz jende-ari horrek ez diola axola.

Iaz, Orbainak erakutsiz, este-reotipoak hautsizizeneko hitzaldia eskaini zenuen. Nola-ko esperientzia izan zen?

Oso berezia, lehen aldian izan baitzen publikoki nire esperientzia kontatzen nuela. Oso eroso sentitu nintzen, eta jende ugari hurbildu zen. Beti aipatzen dut pertsona bakarrak entzunez gero, eta horrek beste bati kontatuz gero, egindakoa nahikoa iruditzen zaidala.

Zuk bizitakoaren berri eman ondoren, sentitu duzu jende gehiago hurbildu zaizula sentimenduak partekatzerako edo babesa ematera?

Inguruko jende ugari joan zen hitzaldira, eta askok esan zidaten ez zutela uste modu horretan pentsatzen nuenik; nirekiko zuten aurreiritzia hautsi zen. Gaixotasun honek lazo arrosa polit horren itxura du, baina gizartean, oro har, ezjakintasuna handia da. Hori dela eta, ate berri bat ireki zait. Inguruan, agian, ez duzu minbizi hau bizi duen inor, edo honi buruz zerbaite pentsatzen duen inor; horregatik, orain ere, entzun nahi duen orori nire kasua kontatzeko prest nago.

Gaur, saio berri bat duzu, eta berriro, kultur etxean.

Esperientzia pertsonaletik harago doan kontakizuna izango da, zerbaite orokorragoa. Orain, minbizia atzeman zidatenetik ia bost urte igaro direnean, urrunagoko ikuspegi batetik begiratzen dut guztia. Gainera, sare sozialen bitartez, protesirik gabe bizitzea erabaki duten emakume gehiago daudela ohartu naiz, eta indar handia hartzen ari den mugimendu baten berri izan dut, gutako asko bular bakarreko titi-zorroaren bila gabiltzalako.

Zertan datza mugimenduak?

Iaz, Teta y teta taldeak crowdfunding bidez sortu zuen ideia, eta aurrera atera da. Estatu mailako mugimendua da, eta norbako, elkarte nahiz eragile ugari gaude proiektu horren atzean. Operatu gaituzten emakumeontzako egiten zituzten titi-zorroak poltsikodunak izaten ziren beti, protesi bat sartzeko; orain, aldiz, bular bakarrekoak egin ditzaten eskatzen dugu. Nire kasuan, titi-zorro baten zain nago. Egunerokotasunerako oso garestia da, baina orain abiatu dugun kanpaina baten bitartez, enpresa handiak gure beharretara egokitzera anima daitezen nahi dugu. Gainera, badira zenbait etxe konpromiso hori hartuko dutela baieztatu dutenak. Partxe baten modukoa izaten ari da niretzat.

Gaurko hitzaldian, gainera, ez zara bakarrik ariko.

Ez. Bigarren zatian Laura Muelasek parte hartuko du. Antropologoa da, eta bularreko minbizia izan dugun emakumeok jasotzen dugun tratua inguruko ikerketa bat egin du. Gizonezkoen %1 da minbizi hau izaten duena, eta beraz, iruditzen zait emakumeoi ezberdin tratatzen gaituztela. Horri buruz ariko da, hori bai, gaztelaniaz. Ni ere deseatzen nago bera entzuteko.

Lehendik ezagutzen zenuten elkar?

Ez. Antolatzaileei aipatu nien asko lagundu ninduela *Cicatrices invisibles* liburuak; hain justu, bertan parte hartzen du Laurak. Hortaz, oso pozik nago, nire bizitzan mugari izan den elementu baliagarri bateko partaide batekin egongo naizelako.

Askok diote, minbiziaren pasaren ondoren, bizitza benetan bizitzaren hasten direla.

Bizitzako *kit-kat* txiki bat izan da, baina, azkenean, bizitzak aurrera jarraitzen du. Nire kasuan, berriro ere minbizi igaro aurreko ziklo berean sartuta nago. Beti pizten zait argi txiki bat, kontu handiz ibiltzera behartzen naue-na, baina oro har, lehen nuen eguneroko ohiko martxa berreskuratzen ari naiz.

Tolosako Gizarte Zerbitzuen gida irakurterraza, eskura

Eskuz esku ibili ezin denez, eskaera bidez banatuko da; Udaten edo Gizarte Zerbitzuen Sailean eskatu behar da

J. Artutxa Dorronsoro Tolosa

Otsailean aurkeztu zuen Tolosako Udalak Gizarte Zerbitzuen gida irakurterraza. Orduan, eraikin publikoetan eta gizarte eragilean artean banatzea zen asmoa, baina konfinamenduaren ondorioz eten egin behar izan zen banaketa. Egungo egoera dela-eta, gida ezin da eraikin publikoetan utzi, eskuz esku ibiltzeko arriskua baitago. Hortaz, eskaera bidez banatuko da.

Azken asteetan, gizarte eragileekin harremanetan dago udala, gidaren berri emateko; gizarte arloko elkarte eta talde guztiei banatuko zaizkie ale batzuk. Birtartekari lana ere egingo dute eragileek, hau da, interesa izan dezaketen erabiltzaile eta pertsonen gidaren berri eman eta dagokienentzat aleak eskatuko dituzte. Gainerako herritarrek ere egin dezakete eskaera Udaten edo Gizarte Zerbitzuen sailean, gizartezerbitzuak@tolosa.eus helbide elektronikora mezua bidaliz edo 943 69 75 00 telefono zenbakira deituz; udalaren webgunean (www.tolosa.eus) ere kontsultatu daiteke.

Adinekoentzat, atzeritarrentzat edota zaurgarritasun egoeraren dauden pertsonentzat izan daiteke erabilgarri. Herritarrei modu ulerterrazean eskaintzen diren zerbitzuen berri ematea eta gizarte zerbitzuak tolosarrengana gerturatzea du helburu gidak. Sei hizkuntza ezberdinetan dago eskuragarri, eta guztira zazpi ataletan dago antolatuta, herritarrek informazioa modu errazean jaso dezaten.

Azkenekoz, 2019ko apirilean argitaratu eta etxeetan banatu zuen udalak Gizarte Zerbitzuen Gida, herritarrek eskaintzen diren zerbitzu eta laguntza guztiak eskura izan zitzaizkien. Dena den, askotariko beharrak dituzten herritarrei zuzendutako gida ulerterraza kaleratzeko premia sortu zen, baliabide guztien aurkezpenean laburra egin asmoz, Gizarte Zerbitzuen inguruko informazioa herritar guztiei helarazteko.

21 dira azken orduetan COVID-19an positibo eman dutenak

Azken 15 egunak kontuan hartuta Tolosak 700eko intzidentzia tasa eman du eta Amasa-Villabonak 321ekoa

Erredakzioa Tolosa

Osasun sailak emandako azken datuen arabera, 8.953 PCR proba egin ziren herenegun, eta horietatik, 625 izan ziren COVID-19an positibo.

Gipuzkoan 304 izan ziren positiboak, tartean, 21 Tolosaldekoak. Zehazki Tolosan 10 positibo egon dira, Zizurkilen 4, Alegian 3, Ibarra 2 eta bana Berastegin eta Iruran.

OSASUN EREMUAK

Osasun eremuei dagokienez, Alegia eta Tolosa gorritz ageri dira, 900 eta 664eko intzidentzia tasarekin, hurrenez hurren.

Ibarra eta Amasa-Villabona laranjaz ageri dira, 382 eta 464ko tasarekin. Tolosaldeari dagokionez, 565eko tasa du azken 15 egunak kontuan hartuta.

Herrika, berriz, Tolosa da kolore gorritz jarraitzen duen eskualdeko herri bakarra, 700eko tasarekin. Laranjaz Amasa-Villabona ageri da, 321eko tasarekin.

Ospitaleen egoera dela eta, COVID-19aren ondorioz 45 pertsona ospitaleratu ziren atzo, eta COVIDa duten 59 pertsona daude ZIU.

Ospitale publikoari buruzko argibideak eskatu dituzte

Tolosako alkateak ospitale publikoaren gainean esandakoek alderdien erreakzioak ekarri ditu; PSE-EEko Larraul eta Berrobiko alkateek gutun bat bidali diote Osasun sailburuari

Erredakzioa

Olatz Peon Tolosako alkateak eskualderako ospitale publikorako kokapenak aztertzen hasiak direla eta Osasun sailarekin bilera bat egingo dutela aurreratu zuen pasa den astean, eta horrek alderdien erreakzioak ekarri ditu. EH Bilduk bilera horretan egon nahi duela esan zuen eta PSE-EEko Berrobiko eta Larraulgo alkateek gutun bat bidali diote Gortzone Sagardui Osasun sailburuari bilera bat eskatuz. Bileran Tolosaldeko ospitale publikoari buruz hitz egin nahi dute, «lehen eskuko informazioa jasotzeko».

David de Miguel Berrobiko alkateak eta Maite Arana Larraulgoak bidali dute gutuna, Andoaingo Maider Lainez alkatearekin batera. Tolosaldeko OSI-aren zuzendari-kudeatzaile Marisa Merinori ere eskatu diote bilera bat «zerbitzuaren erabiltzaileen kexak helarazi ahal izateko».

Sagardui sailburuari bidalitako gutunak Olatz Peonek pasa den astean egindako adierazpenak ditu ardatz. «Gutunean bilera bat eskatzen diogu ospitale



Asuncion klinikaren larrialdietako sarrera. R.C.G.

publikoa egiteko proiektuaren inguruko informazioa eskatzeko eta Eusko Jaurlaritzaren eta Asuncion klinikaren arteko kontzertazioaren, eta Belate (Tolosa) zein Andoaingo anbulatorioen inguruko kezka azaltzeko. Hain justu anbulatorio horietan Tolosaldeko biztanleei osasun arreta espezializatua emateko», esan dute. Era berean, Sagardui go-

goratu diote Berrobi, Larraul eta Andoaingo udaletan Inviza SA enpresak –Asuncion kudeatzen duen enpresa– azkenaldian ematen duen zerbitzuari buruzko kexak jasotzen ari direla herriarren partetik. «Ezinegon horren berri emango diogu ere Marisa Merino Tolosaldeko OSIko zuzendari-kudeatzaileari», gaineratu dute.

PCR probak egiteko Tolosako gunea lekualdatuko dute

Orain anbulatorioan egiten dituzte probak, baina datorren astean Alondegia plazan egiten hasiko dira

Erredakzioa Tolosa

Tolosako anbulatorioan auto ilara luzeak egiten dira PCR probak egiterakoan eta hori ekidin ahal izateko erabaki dute lekualdatzea. Sintomak dituzten edo kasu positiboekin harreman zuzena izan duten herritarrek hortaz, Alondegira joan beharko dute PCR probak egitera. «Asko autoz gerturaten dira eta autoan bertan daudela egiten zaie proba eta horrek inguruetan ilarak eta auto pilaketak sortzen ditu. Arazoari irtenbidea emateko, Tolosaldeko ESIak PCR probak egiteko gunea bat egokitu du Alondegiko plaza estalian datorren astetik aurrera», esan du Tolosako Udalak. Datorren astean ez bada, azaroan hasieran hasiko dira hortaz, Alondegia plazan PCR probak egiten.

Auto pilaketak saihesteko helburuz hartu dute erabakia eta gripearen aurkako txertoarekin gauza bera egin dutela gogoratu du: «Gripearen txerto kanpainarako Emeterio Arrese eraikinarekin egin den bezala, Tolosako Udalak herriko gunea publikoak osasun alorrera bideratu nahi izan ditu».

Etorkizuneko sareak eraiki nahi dituzte

Saiaz Mankomunitateak 'Bizilagun, bizipoza: Etorkizunerako sareak eraikiz' proiektua garatuko du ikasturtean zehar

Naia Vazquez Albiztur

Saiaz Mankomunitateak *Bizilagun, bizipoza: Etorkizunerako sareak eraikiz* proiektua abiarazi zuen irailean eta ikasturte guztian zehar landuko dute.

Erronka honen bitartez, konfinamenduan zehar hedatutako talde-erresilientzia dinamikak aztertuko dituztela esan dute. Erresilientzia une gogorretatik eta egoera latzetatik irteteko gai-

tasuna da eta pandemian zehar nola garatu den aztertu nahi dute. Era berean, abiarazitako baliabideak aztertu eta aurre egin zaien oztopo zein gabeziak identifikatu nahi dituzte. Eta horretarako tresna teknologiko bat erabiliko dute «presentzialtasun maila desberdinak eta garai hauetan elkartzeko eta elkar eragiteko modu berriak bultzatzeko». «Gizartearen taldeko garpenerako prozesuak birdefini-

tzeko erronka handia dugu aurrean, eta oraingo, COVID-19ak sortutako egoerarekin bizi behar dugu», gaineratu du Saiaz Mankomunitateak.

Prozesu «berritzaile» honen helburua da beraz, Albiztur, Bidania-Goiatz, Beizama eta Errezilen konfinamenduan zehar hedatutako talde-erresilientziako dinamikak aztertzea, eta martxan jarri diren baliabideak, oztopo edo gabeziak identifika-

tzea. «Taldekako prozesuei laguntzeko ahalmena indartu nahi dugu, aurrez aurreko topaketak edo biltzeko modu berriak bultzatuko dituen tresna teknologiko baten bidez», azaldu du. Horretarako, izaera parte-hartzaileko hainbat jardura jarriko dituzte abian mankomunitateko hainbat eragilerekin (publikoak, pribatuak eta sozialak) batera.

Bi helburu dituzte; batetik, hurbiltasuneko harremanak sortzea edo finkatzea eta bestetik, miaketa eta diseinurako prozesu parte-hartzaile bat abiaraztea. «Prozesuaren emaitzek konpon-

bide teknologiko bat definitzea erraztuko dute», esan du mankomunitateak.

Proiektuan parte hartzeko edo xehetasun gehiago lortzeko Farapiko Begoña Pecharromanekin bego@farapi.com helbidera idatzi ahal da edo 943 00 35 85 telefono zenbakira deitu.

Proiektua Deustuko Unibertsitatearen, Donostiako Udalaren, Saiaz Mankomunitatearen eta Gipuzkoako Itxaropenaren Telefonoaren elkarrekin bultzatzen dute, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz 2020-2021 programaren barruan.



ATARIA

«Oso esperientzia berezia eta polita izan da filmean parte hartzea»

GARAZI URKOLA AKTOREA

Donostiako Nazioarteko 68. Zinemaldiaren sail ofizialean aurkeztu duten 'Akelarre' filmean parte hartu du billabonatarrak; Bilboko Dantzertin ikasten ari den gazteak lehen esperientzia izan du zinema munduan

Jon Miranda Amasa-Villabona

Musika, dantza eta antzerki mundua txikitatik ezagutzen ditu Garazi Urkolak (Amasa-Villabona, 1998). Bilbon Dantzertin egiten ditu ikasketak eta handik erantzun die TOLOSALDEKO ATARIA-k egindako galderei.

Gaztetatik izan duzu taula gainerako joera?

Bai, Loatzo musika eskolan hasi nintzen eta 18 urte bete arte klarnetea jotzen nuen. Antzerkia bost edo sei urterekin ezagutu nuen, eskolan bazkalorduan tailer bat ematen zigun Idoia Sanchezek eta hori izan zen nire lehen hartu-eman. Gero, 13-14 urterekin eskolan aukerako ikasgai bezala geneukan antzerkia eta

hortik Andoaingo Katramila taldera pasa nintzen. *Hil eta bizi* obran parte hartu nuen, adibidez, eta oso gustura ibili nintzen. Hala ere, ordura arte ikasketak beste bide batetik egin nituen, batxilergo teknologikoa ikasten ari bainintzen. Gero, ordea, aukera egin behar izan nuen garaian erabat argi eduki nuen: nik interpretazio mundura jo nahi nuen.

Zein ikasketa burutzen ari zara une honetan?

Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantzako Goi Mailako Dantzerti eskolan nabil. Eskola berria da, bi promozio baino ez dira atera. Bigarrenean sartu nintzen ni eta beranduxeago amaituko dut, ikasturte bat bitan zatitu behar izan nuelako filma grabatu ahal

izateko. Nahikoa ikasketa osatuak dira. Lana gogor egin behar izaten da, exijentzia maila handia baitago. Alor asko ukitzen ditugu, dantza, interpretazioa, musika, ahotsa, dikzioa eta teorikoki ere arte eszenikoen historia, dramaturgia eta literatura aztertzen ditugu. Hartutako erabakiarekin gustura nago.

Nola sortu zitzaizun filmean parte hartzeko aukera?

Egia esan, nik aurretik antzerki mundua ezagutzen nuen. Zinema ez zitzaidan arrotz egiten, baina inoiz probatu gabea nintzen. 2018ko uda bukaeran casting baterako deialdi bat jaso nuen sare sozialetatik. Filmaren zuzendariak era guztietako jendea ezagutu nahi zuen, ez bakarrik zine mundukoa. Barruan zerbaitek esaten zidan baietz, joateko probatzera. Izena eman nuen, lehenengo proba egin eta bi astetara berriro hots egin zidaten bigarren baterako. Segidan esan zidaten zuzendariak ezagutu nahi ninduela eta barruan nengoela.

Inoiz casting batera aurkeztu al zinen?

Zine mailan aurrenekoa nuen. Casting hauek modu itxi batean

egiten dira normalean, baina kasu honetan zabala zen deialdia. 800 neska pasa ziren proba horietatik eta bost bakarrik aukeratu gintuzten. Sei gara filmean ateratzen garenak, baina protagonistaren rola egiten duen neska lehenagotik zegoen aukeratu, bide itxiago batetik.

Katalinen papera jokatzeko duzu pelikulan. Nor da Katalin?

Denetan gazteena da eta beste bost gazteekin ibiltzen hasi berria. Berez familia onekoa da eta beste neska hauek ezagutu eta berehala atxilotu eta sorgin izateaz akusatuko dute. Ezjakintasun erabateko bizi du gertatzen ari zaiona, inozentzia. Ezustean harrapatzen du atxiloketak.

Aurretik ezaguna al zenuen sorgin ehizen historia?

Entzutera banuen, nahiko presente izan dut betidanik, baino gehiago sakontzeko aukera izan dut orain. 1609. urtean dago girotua istorioa, euskal kostaldeko herri batean. Pelikula egiazko gertakizunetan dago oinarrituta.

Nola izan zen pelikularen prestaketa?

2018ko azaro hasieran jakin nuen hautatu nindutela. Berehala hasi ginen dantza eta abestiak sortu eta entseatzen. Bagenekien zeren ingurukoa izango zen filma, baina bide horretan gidoi bertsio ezberdinak jaso genituen. Pertsonaia eraikitzen joan ginen pixkanaka.

Noiz eta non egin zenituzten grabazio lanak?

2019ko maiatzean hasi genituen grabazioak. Filmatzeko egutegia zazpi astekoa zen eta ekaina amaieran, sanjoanetarako amaitu genuen. 100 ordu grabatu ziren, nahiz eta gero filma ordu eta erdikoa izan. Egunero 11 orduko lanaldiak izaten genituen. Lagan, Saran, Lesakan, Urbasan eta Itziarren egon ginen grabatzen. Oso paraje politak dira.

Zer moduzko harremana izan zenuen lan taldearekin?

Askotan nahiz eta pantailan ez den atzematen jende askok hartzen du parte grabazioetan. Zuzendari taldea dago, produkzio taldea, jantzitegiak, makilatzailak, ile apaintzaileak... Pertsona guzti horien lana oso garrantzitsua da. Pablo Agüero argentinarra da zuzendaria eta berekin ere oso tratua izan genuen.

Behin pantaila handian ikusita, zein balorazio egiten duzu?

Oso esperientzia berezia eta polita izan da niretzako filmarena. Ez nintzen behin ere ibili horrelako lan talde zabalarekin. Niretzat dena berria zen. Eta ez niretzat bakarrik; Amaia ez beste bost

neskentzako lehen aldia zen film batean parte hartzen genuela, beraz, elkar asko babestu genuen. Talde giro polita sortu zen. Pixkana joan ginen egoerara moldatzen.

«Zabala zen deialdia. 800 neska pasa ziren proba horietatik eta bost bakarrik aukeratu gintuzten»

«Ez nintzen behin ere ibili horrelako lan talde zabalarekin, niretzat dena berria izan zen»

«Pentsatzen dut harrera ona izan duela filmak nahikoa gerturatzen delako gertatu zen horretara»

Donostiako 68. Zinemaldiko sail ofizialean aurkeztu zen filma. Zer moduzko esperientzia izan da Zinemaldiarena?

Oso interesgarria. Egia da COVID-19agatik aurtengoa arraro joan dela, baina guretzat lehen aldia izan denez, ez geneukan alderatzekorik. Esperientzia berezia izan da, oso bizipen polita. Pelikularen sei pase eman zituzten, baina gu estreinaldian bakarrik izan ginen. Alfonbra gorria ere zapaldu genuen, gure urduritasun eta guzti.

Villabonako Gurea aretoan ere eskaini dute filma.

Asteburu batean egon zen ikusgai pelikula eta igandeko saioan solasalditxo bat izan nuen gerturatu ziren herritarrekin. Oso gustura aritu nintzen, harrera ona egin zioten filmari eta asko eskeretzen da zure herrian pelikulari hain harrera goxoa egitea. Uste dut filmak beste ikuspuntu bat ematen duela, orain arte erakutsi ez dena, eta pentsatzen dut horregatik izan duela harrera ona, nahikoa gerturatzen delako gertatu zen horretara.

Aurrera begira zein asmo dituzu interpretazio munduan?

Orain ikasketekin ari naiz, aurtur bukatzen ditut. Momentuz eskuartean ez dut beste proiekturik baina nire asmoa mundu honetan jarraitzea da. Ikasten jarraitu nahi nuke eta beste esperientzia batzuk bizi nahi nituzke. Ez dira garairik onenak, baina ikusiko dugu zein bide hartzen duen guztiak. Ea nola ematen dion buelta kulturak egoera guzti honi. Oraingoz *Akelarre* pelikularena bizitzea tokatu zaigu eta pozik egoteko moduan gaude, ez dakiagu berriz horrelako aukerarik sortuko zaigun.

1936 eta 1945 artean amezketarrek zer bizitu zuten jasoko du udalak

36ko gerran eta lehen frankismoan Amezketa gertatutakoaren inguruan ikerketa «sakona» egin nahi du udalak, Aranzadiren laguntzaz; testigantzak bildu nahi dituzte

Irati Saizar Artola Amezketa

Urteak daramatza oroimen historikoa lantzen Amezketako Udalak, eta orain, pauso bat gehiago ematea erabaki dute: 1936 eta 1945 urte bitartean bizi izan zen «garai iluna» aztertu nahi dute. Horretarako, herritarrei dei egin diete, garai horien inguruko testigantzak, argazkiak edota dokumentazioa bildu ahal izateko.

36ko gerran eta lehen frankismoan, Amezketan gertatutakoaren inguruan, ikerketa «sakona» egiteko asmoa dutela azaldu du Iñaki Arandia zinegotziak, Aranzadi zientzia elkartearekin elkarlanean. Aurrez Joxe Mari Otermin herritarrek egindako lan «itzela» goraiatu du.

«Badakigu garai hartan amezketar askok latz sufritu zutela; bizitzako adinik egokienean etxea utzi eta derrigorrez gerrara joan behar izan zuten, batzuk fronte-an hil ziren, beste asko zauritu egin ziren eta pentsaeraz Frankoren aurkakoak zirenak isunak, espetxeratzeak, desjabetzeak edo epaiketak jasan zituzten», azaldu du Arandiak. Herritarrek zer gertatu zen jakiteko eskubidea dute, eta hori guztia jasota utzi nahi dute.

Jasotzeko bide horretan Aranzadi zientzia elkartearen laguntza izango dute. Aranzadi bere lan proposamena aurkeztu zuen udalean, eta udalak lan akordioa adostu eta sinatu egin zuen. Aranzadiren laguntzak lanari «osotasuna eta kalitatezko bermea» emango dizkiola aipatu du Arandiak.

Lan proposamenaren helburu nagusia liburu bat idaztetik harago doala gaineratu du udalak. «Herrian sortu den mugimenduak, aurrera eraman behar diren ekintzek edota herritarren testigantzek eta esku hartzeek dute lehentasuna», esan dute. Izan ere, kontakizuna osatzeko, garai hartako protagonista zuzenen faltan, protagonista horien senide eta ingurukoen beharra izango dutela azpimarratu dute. Horrela, «inongo arrazoirik gabe



Prentsaurrekoa eman zuten, atzo, Amezketako kultur etxean, Javi Buces Aranzadi zientzia elkareko ikertzaileak eta Iñaki Arandia udal zinegotziak. I.S.A.

sufritu zutenekiko egia, justizia eta erreparazioa» azaleratu nahi dute.

Aranzadiko kideen laguntza izango dute horretarako. Javi Buces ikerlariak nabarmendu du Aranzadiren egitekoa egia ikeretzea izango dela, ondoren, erreparazioa eta justizia egin daitezkeen. Izan ere, Bucesek esan duenez, «egia jakin gabe, ezin dugu erreparazioa eta justizia eskatu».

HERRITARREI DEIA

Aranzadi zientzia elkarteak ikerketa lana burutzeko hainbat artxibo kontsultatuko ditu: tokikoak, Euskal Herri mailakoak eta baita estatukoak ere. «Gerraren nondik norakoak dagoeneko ezagutzen ditugu, akademikoek izugarritzko lana egin dute. Orain jakin nahi duguna da erreparazioa nortzuk sufritu zuten, izen abizenekin», esan du Bucesek.

Guztia ez dago artxiboetan jasota, ordea. Artxiboetatik jasotakoarekin lan historikoa egitea da asmoa, eta paraleloki testigan-

tzak jasoko dituzte. «Erbestera nork joan behar izan zuen edota nor fusilatu zuten jakin nahi dugu, edota esaterako, emakumeen aurkako erreparazioa ez dago dokumentuetan jasota. Kontakizun horiek nahi ditugu», argitu du Bucesek.

«Gerrara nola joan ziren, non hil zituzten, gorpua ekarri eta hiletarik egin zitzaizen, zein izan ziren zaurituak, zauriengatik laguntza ekonomikorik jaso ote

zuten edo nazionalista izateagatik jasotako ondorio kaltegarriak zeintzuk ziren» argitu nahi dute la gaineratu du Arandiak.

Laster Oroimen bulegoa zabalduko du udalak, herritarrek dakiten informazioa eman edota jaso dezaten. Bitartean kontakturako bi aukera proposatu ditu Bucesek herritarrek erabil ditzaten: memoria@aranzadi.eus helbidea eta 943 466 142 telefono zenbakia.

Herritarrei, beraz, deia luzatu diete, etxera iristen zaizkien informazio orriak tentuz irakurri eta garai hartako argazki, dokumentu eta pasadizoen gogoeta egiteko. Oroimen bulegoa irekitzen dutenean, horien berri emateko aukera izango dute, zuzen-zuzenean, udalean. Horretarako egun eta ordu batzuk zehaztuko dituzte; aurrerago jakinaraziko du udalak noiz zabalduko duten bulego hori.



zozketak

Atarikideentzat menu bat daukagu

Orexako Ostatuan bi lagunentzako KMo Babarrun menua.



Atarikideentzat bi sarrera ditugu

Kukai taldearen 'Gauekoak' dantza ikuskizunerako bi sarrera.

Ostirala, urriak 23, 20:30
Leidor Antzokian (Tolosa)



Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus

Imanol Garcia Landa Tolosa

Eukene Larrarte (Tolosa, 1998) 23 urtez azpiko Europako Pistako Txapelketan lehiatu da orain gutxi, Italian. Lau probatan parte hartu zuen: omnium eta scratch probetan laugarren, madisonen zazpigarren eta puntuazioan zortzigarren egin zuen.

Ze sentsazioarekin itzuli zara Italiatik?

Oso onarekin, izan ditudan parte hartzeak nahiko onak izan direlako. Domina bat irabaztea sekulakoa izango litzateke, baina ez naiz horrekin geratzen, baizik eta izan dudana hobekuntzarekin. Oso pozik nago.

Lau probatan parte hartu zenuen. Madisonen Laura Rodriguezekin aritu zinen, eta zazpigarren geratu zineten, probako azkenak.

Ahal genuena egin genuen. Bikoteka izaten da proba, batera egin behar dena, eta ez genuen aurretik entrenatu. Proban bertan izan zen lehenengo aldia eskua elkarri ematen geniona, eta nik uste dut nahiko ondo egin genuela ikusita egoera zein zen. Puntu garrantzitsuak zeuden gero UCiko sailkapenari begira eta hautatzaileak erabaki zuen bikote bat ateratzea.

Puntuazioan zortzigarren egin zenuen, 15 parte hartzailearen artean.

Ondo joan zen. Aurrera egin nuen, eta esprintetan ez nintzen sartu, ihes egitea bilatzen nuelako. Ez nuen zortea izan, ni ateratzen nintzenen beste selekzio-ko bat ateratzen zelako atzetik, eta 400 metroko eta zementuzko belodromo batean zaila zen bakarrik bidea egitea. Harrapatu egin ninduten, eta gero ihesaldi ona atera zenean eusten saiatu nintzen eta beraiekin elkartzen, baina aurretik galdutako indar guztiak eragina izan zuen.

Beste bietan, scratchean eta omniumean, laugarren egin

«Nazioarteko mailan beste koskatxo bat egitea lortu dut pistako modalitatean»

EUKENE LARRARTE TXIRRINDULARIA

Podiumetik oso gertu egon da tolosarra 23 urtez azpiko Europako Pistako Txapelketan; lortutakoarekin gustura, orain absolutu mailan lehiatzeko aukeraren zain dago



RFEC

zenuen. Dominetatik egon daitekeen gertuena.

Puntuazioa gehiago gustatzen zait scratcha baino, azken honetan dena karta batera jokatzen duzulako. Esprint soila denean ez da niretzat egokiena izaten. Horregatik pare bat aldiz mugitu nintzen belgikarrarekin, baina atzetik harrapatu egin gintuzten hiru itzuli falta zirenean. Baina pozik nago harrapatu bezain laster ondo kokatu nintzelako eta esprintean laugarren egin nuelako. Ez naiz azkarrena eta laugarren postua lortzearekin oso gustura geratu nintzen.

Omni-um proba bera lau probaz osatuta dago.

Nik begiz jota nuen proba zen. Probarik garrantzitsuena da, olinpiarra delako. Bertan oso garrantzitsua da lau probetan erregularra izatea. Scratcha da gehien kostatzen zaidana. Esprintean bukatu zen, ondo kokatuta nengoen, baina ez nuen guztia eman ahal izan eta zazpigarren bukatu nuen. Tempo Race proban alde egin zuen erru-

siarrak eta atzetik punturik gabe geratu ginen, baina punturik ez genuenen artean lehenengo geratu nintzen, eta guztira seigarren. Kanporaketa proban oso ondo aritu nintzen, baina arreta galdu nuen eta azkenean uste baino lehen kanporatua geratu nintzen; hor ere seigarren egin nuen. Puntuazio proba nahiko itxia izan zen, esprintetan jokatu zen, eta tarteka nahiko gogorra ere jarri zen. Pixkana puntuak lortzen joan nintzen eta azkeneko esprintean irabazi ondoren, lortu nituen puntuekin omni-umeko sailkapen orokorrean laugarren egin nuen. Podiumetik hiru puntura geratu nintzen, eta beraz, oso pozik egindakoarekin.

Azaldu duzun moduan, omniuma Olinpiar Jokoetan lehiatzen denetako bat da. Datorren urtean egitekoak diren Tokioko jokoetarako balio al dizu Italian egindakoak?

Ez du balio Tokioko Olinpiar Jokoetarako. Sailkapena itxita dago, eta Espainiako selekzioak ez du sailkatzea lortu. Ni ez naiz sailkapen hori lortzeko lanetan aritu, ez naizelako Munduko Kopako probetara joan. Beraz, Parisera begira, 2024ko jokoetara begira jartzea besterik ez dugu. Horietarako madison eta omnium probetarako sailkatzea izango litzateke helburua. Egin berri dudan Europako Txapelketa honek espero dut balio izatea behingoz selekzio absolutuan nire lekua izateko, eta hemendik aurrera hitzordu garrantzitsuagoetan,

Munduko Kopan eta Txapelketan, nire lekua egiten joateko, eta ikasten joateko. Hauetan sartzea izango litzateke lehen helburua, gero Olinpiar Jokoetara joan ahal izateko.

Italiara joan aurretik, Espainiako Pista Txapelketa izan zen jokoan Tafallan. Bertan hiru domina lortu zenituen.

Oso gustura nago lortutako emaitzekin. Jendea horretarako prestatzen da eta gustura nago egindako lanarekin. Europako Txapelketara joateko puntu onean nengoela erakutsi nuen. Harelere, nire helburu nagusia Europako Txapelketa zen, eta baita gainontzeko nazioarteko txapelketak ere.

Denboraldia bukatu al zaizu?

Errepideko denboraldia bukatu zait, baina pistakoak jarraitzen du. Azaroa bukaera arte pista egiten jarraituko dut. Bi modalitateak egitean, ez dut denboraldi bukaera eta hasiera bat; esan daiteke atsedenaldi txikiak egiten ditudala.

Ze proba dituzu pistan urtea bukatu aurretik?

Europako Txapelketak daude, maila absolutuan, azaroaren erdialdean. Oraindik hautatzailearen erabakia falta zait jakiteko joango naizen ala ez, baina entrenatzen jarraitu behar dut. Gipuzkoa Ogi Berri taldearekin beste nazioarteko lasterketa batzuk baditut eta horiei begira ere entrenatzen jarraituko dut.

Eta orain arteko denboraldiaren zer balantze egiten duzu, bai errepidean zein pistan?

Errepidean gehiagorako gogoz geratu naiz. Koronabirusa dela eta egutegia motzagoa geratu da pistakoa baino, eta ea datorren urtean gehiago parte hartzeko aukera dugun. Pistari dagokionez, jarritako helburuak beteta daude, beste koskatxo bat egitea lortu dugu nazioarte mailan, eta zentzu horretan balantze oso positiboa egiten dut.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu



Sega txapelketa berria antolatu du Almitzak

Eskualdeko hiru segalari, igandean jokatu den Euskal Herriko I. Sega-Sail Lehiaketan

Asier Imaz

Almitza elkarteak antolatuta, Euskal Herriko I. Sega-Sail Lehiaketa egingo da igande honetan Hernanin, Jauregiko belardian, 12:00etan hasita. Eusko Jaurilaritzaren neurri berriek ez diote, dirudienez, eragingo probari, parte hartuko duten segalariak eta belar biltzaileak federatuta daudelako.

Emakumezkoak hasiko dira lehenbizi parte hartzen, eta 400 metro karratuko saila ebaki beharko dute. Eskualdeko Alaitz Imaz hernialdearrak eta Ainara Otamendi ibartarraz gain, Irati Astondoa eta Malou Henriksen ariko dira lehian. Gizonezkoek 1.000 metro karratuko saila ebakiko dute, eta Mikel Lizartza tolosarraz gain, Iban Pardo, Julen Gabirondo eta Iñigo Merkader ariko dira lehiaketan.

Almitza elkarteko Gari Llobregatek azaldu duenez, «iraupe nezko lan bat izango da. Euskal Herriko segakeran, ebakitako ki loak kontatzen diren modalitatean, segalariez aparte, biltzaile talde handia egoten da eta kontaktua handia euren artean. Hori

nolabait ekiditeko eta aldi berean iraupenezko lan bat egiteko modua bilatzen saiatu gara lehiaketa honekin». Antolatzaileen aurreikuspenen arabera, 20-25 minutuz ariko dira emakumezkoak eta 35-40 minutuz ariko dira gizonezkoak.

Saila lehenago ebakitzen duenak irabaziko du, baina kontuan izan behar da epaileek belarra ebaki ahala epaitzen joango direla, eta segalariak akatsen bat egiten badu, esaterako zatiren bat ebaki gabe uztea, segalariari bueltakoan esango dio hori txukuntzeko. Ez da, beraz, denbora zigorrik izango: segalariak txukuntzeko betebeharra izango du. «Lehiaketa bizia izatea nahi dugu, eta segituan jakitea zein segalarik irabazi duen», esan du Llobregatek. Lehiaketa berri honi segalariek harrera ona egin diotela gaineratu du Almitzako kideak: «Kontuan izan behar da aurten ez dela entrenatzeko aukera handirik izan. Ez da egoerarik onena, baina animatu direnak oso gustura daude, eta aurten animatu ez direnei hurrengo urtera begira ideia polita irudituaie».

Ikusleei dagokionez, belardia eremu itxi batean dagoenez, bertarako sarbideak erabat kontrolatuta egongo dira. «Honekin bermatzen da jende kopurua eta segurtasun distantziak kontrolpean izatea», zehaztu du Llobregatek.

Igarondo Urpekoak taldekoak indartsu Hondarribian

Erredakzioa

Hondarribiko zeharkaldia egin zen larunbatean, eta Igarondo Urpekoak taldeko hegats igerilariak emaitza oso onak lortu zituzten bertan. Batez ere emakumezkoetan, podiuma bereganatu baitzuten taldekoek: Irati Lakunza (14.40) izan zen garai-

lea, Maddi Goenaga (17.17) bigarrena eta Ainhua Tolosa (19.00) hirugarrena.

Gizonezkoetan hirugarren postua lortu zuen Jose Mari Zamorak (14.54). Bere aurretik helmugaratu ziren Ordizia taldeko Josu Goya (14.14) eta Real Sociedad taldeko Jaime Caballero (14.49).

Amasako Mendi Maratoia bertan behera geratu da

Imanol Garcia Landa

Amasa-Villabona

Larunbat honetan jokatzekoa zen Amasako Mendi Duatloia, baina azkenean bertan behera uztea erabaki dute antolatzaileek. Antolatzaile lanetan aritzen den Eneko Gurrutxagak azaldu duenez, «beldurrez geunden horrelako zerbait gertatu ahal izango zela. Pertsonalki egoera beranduago okertuko zela pentsatzen nuen, baina nahiko azkar etorri da, eta badaezpada ere erabaki dugu bertan behera uztea». Izan ere, Eusko Jaurilaritzak ostegunetik aurrera ezarri nahi di-tuen neurri berrien arabera, federatu gabe dauden kirolarien lehiaketak ezingo dira egin, eta ezaugarri hori du Amasako Mendi Duatloiak.

Mendi duatloiak batez ere kirolari herrikoientzat pentsatutako probak dira, eta ez dago zer-

tan federatuta egon behar. «Arau berri hori ateratzen den unetik aurrera, ezingo dugu proba egin», zehaztu du Gurrutxagak. «Antolaketa lanak egiten jarraitu ostegunera edo ostiralera arte eta bat-batean ezerezean gertatzea ez zen plana, eta egoerak ere ez du uzten, beraz, hori dena kontuan hartuta hartu dugu erabakia». Orain arte lau mendi duatloi egin dira, eta Amasakoa egitear zegoela bertan behera uztea penaz hartutako erabakia izan dela gaineratu du Gurrutxagak. Euskal Herriko Mendi Duatloien Zirkuituaren barruan, Adunakoa litzateke hurrengoa, azaroaren 7an, azkena izango litzatekeena. «Adunako antolatzaileekin ez dut hitz egin, baina araua martxan jartzean, ez dut uste bi aste barru kenduko dutenik. Tamalez, beraiek ere gure egoera antzekoan izango dira», esan du Gurrutxagak.

Alpino Uzturrekoek hiru domina, Espainiakoan

Erredakzioa

Alpino Uzturreko eskiatzaileek hiru domina lortu dituzte, urrezko bi eta zilarrezko bat, asteburuan Jacan egin den Espainiako Rollerski Txapelketan.

Larunbatean, klasiko eran lehiatuko lasterketan, 2,6 kilometrokoa, emakumezkoen 18 urtez azpiko mailan Alaia Juaristik txapeldunorde izatea lortu zuen, helmugan 14.49ko denbora eginez. Naroa Amantegi laugarrena izan zen, Olaia Plazas bosgarrena eta Laia Arakama seigarrena. Proba berean, gizonezkoen senior mailan Mikel Plazas bosgarrena izan zen.

Igandean, skating eran lehiatu ziren, 5,2 kilometroko ibilbidean. Gizonezkoen senior mailan Imanol Rojo nagusitu zen helmugan 15.23ko denbora eginez. Mikel Plazas, berriz, seigarren izan zen. Emakumezkoen 18 ur-



Imanol Rojo, igandeko proban. ATARIA

tez azpiko mailan, Alaia Juaristik urrezko domina lortu zuen txapelketa irabaziz eta helmugan 23.58ko denbora eginez. Olaia Plazas laugarren izan zen, Naroa Amantegi seigarrena eta Laia Arakama zazpigarrena.

Eizagirre Espainiako selekzio absolutuaren deialdian sartu da

TOLOSA // Nerea Eizagirre Realeko jokalaria tolosarrak Espainiako selekzio absolutuarekin debutatu egin dezake datorren urriaren 23an. Espainiak Txekiar Errepublikaren aurka jokatu du Sevillan, 2022ko Eurokoparen sailkapen fasearen barruan. Guztira 23 dira deialdian sartu diren jokalaria. Jorge Vilda Espainiako selekzioaren hautatzaileak azaldu duenez, «Nereak aurkariak atzean uzteko duen gaitasuna jokalaria gutxi dute. Oso ondo ezagutzen dugu, beheko mailetan izan dugulako eta uste dugu taldeari gauza asko emateko gai dela».

Pilotarien Elkarteak sortu dute Altunak eta beste hiru pilotarik

AMEZKETA // Pilotarien Elkarteak sortu dute Joseba Ezkurdiak, Jokin Altunak, Mikel Urrutikoe-txeak eta Aimar Olaizolak. Lau pilotari horiek herenegun bildu ziren, arrazoi zehatz batzuk bultzatuta: «Gaur egun pilota profesionalak eta lehiaketek duten egoera ikusita, eta egunak pasatzen ari direla eta gauzak zailtzen ari direla ikusita, arazoari ahalik eta lasterren irtenbidea bilatzen saiatzeko». Pauso batzuk ematea erabaki dute; horien artean, Pilotarien Elkartea bat sortzea. Haiek gidatuko lukete, eta soilik EPELn ari diren pilotariak parte hartuko lukete. Bien bitartean, atzo ziren biltze-koak Baiko enpresako ordezkariak eta greban dauden pilota-riak.

Abraham Olano Mendi Bizikleta Martxa, bertan behera

TOLOSA // 32. Olarraingo Abraham Olano Mendi Bizikleta Martxa Herrikoia urriaren 25ean ospatzekoa zen. Antolatzaileek, Abraham Olano Peñako kideek, martxa bertan behera uztea erabaki dute, COVID-19aren inguruko egoera dela eta. «Indarrean sartzekoak diren neurri berriekin ezingo genuke egin, baina aurretik ere pentsatuta genuen ez antolatzea», esan du peñako lehendakari Ekaitz Izagirrek. «Parte-hartzaile, antolatzaile eta boluntarioentzat arrisku bat suposatzen zuen eta horregatik hartu dugu erabakia».



ASTEAZKENA, 2020KO URRIAK 21
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoeta: 687 410 022.
anoeta@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Teknologia berriekin, aukera berriak

Ariketa eta jolasen bitartez, musikaren lengoaia lantzen dute ikasleek, eta etxean ere jarraitu dezakete ikasketa prozesuarekin



Teknologia berriak musikaren irakaskuntzaren ari dira aplikatzen musika eskolan. ATARIA

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Eduardo Mocoroa musika eskola berrikuntza prozesu batean murgilduta dago. Garai berrietara egokitzeko hainbat berrietasun txertatu dituzte ikasketen prozesuan, eta horietako bat da *Aula virtual musica* plataformaren erabilera. Hainbat ariketa eta jolasen bitartez, musikaren lengoaia ikasteko aukera eskaintzen duen plataforma digitala da.

Musika eskolan bertan jarri duten pantaila interaktibo baten bidez, kantatuz, erritmoak egi-

nez, ariketak idatziz edo jolasen bidez, musikaren lengoaia lantzen dute ikasleek, jakituria horietan sakonduz. Horrez gain, ikasleak etxean ere jarraitu dezakete prozesuarekin, ordenagailutik, tablet batetik edo sakelakotik ere konektatu baitaitezke.

Plataformak, gainera, urtetik urterako garapenean ere laguntzen du. Hala, lau kurtsoan zehar erabili dezakete plataforma ikasleek. Aurten lehen kurtsoarekin hasi dira, eta urtetik urtera kurtso bat gehitzen joango da Eduardo Mocoroa musika eskolako zuzendaritza.

Plataforma oso intuitiboa eta erabiltzeko erraza dela nabarmendu dute musika eskolatik, eta horrek ikasleek ikasteko gaitasunetan ere oso modu positiboan eragiten duela gehitu dute. «Gaur egun teknologia berriek eskaintzen dituzten abantailak erabiliz, musikaren lengoaiari modu erraz, atsegin eta didaktiko batean sakontzeko aukera eskaintzen du plataforma honek». Interesa dutenek, www.aulavirtualmusica.com helbidean plataformaren demo bat dute eskura, plataforma ezagutu ahal izateko.

ASTEAZKENA 21

AGENDA

Zinema

Tolosaldea. IKT Astea: 09:30, Produktibitatea hobetu COVID-19aren garaian (Lehiberri); 14:00, Internet nire komertzio txikiaren eskura (Villabona KZ guinea); 17:00, Marketing Digitala COVID garaian (Lehiberri). **Zizurkil.** Udazkeneko eta neguko basalandare jangarriak ikastaroa, 16:00etan. **Tolosa.** Laura Muelas eta Aintzane Artola, bularreko minbiziaz, 18:00etan, kultur etxean. **Anoeta.** Zoriontsu izateko sortu garaipuin kontaketa, liburutegian, 18:15ean. **Villabona.** Sei metroko hesia saltatu nahi izan zuen emakumea, liburu aurkezpena, Subijanan, 19:00etan. **Zizurkil.** Tertulia feminista, Plazida Otaño liburutegian, 19:00etan.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Eguraldi iragarpena, kantu eskaintzak, agenda eta eguneko albisteak.
15:00. Desafioa. Herri kirolak.
16:00. Zebrabidea. Magazina
20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritza Imanol Artola Felix-ekin.
21:00. Lokatzetan. Umore saioa.

28 KANALA

11:00. Ajoarrieroa; **11:30.** Gaurkoan Tolosalde; **12:00.** Mikel Bereziartua youtuberrari elkarriketa; **17:00.** 1, 2, 3 hemen da Miru; **17:30.** Gaurkoan Tolosalde; **22:00.** Lehen le- roan (Isuo eta Kezman).

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Edurne Mujika Martinez. Euskal Herria kalea, 3. 943 67 09 15.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Antzeko giroa izango dugu. Berrirori ere erdi eta goi-mailako hodei ugari ikusiko dugu zerruan, baina ez da euririk espero eta giroa lasaia izango da egun osoan zehar. Haizeak hegomendebaldetik zakar joko du, bereziki egunaren lehen zatian eta termometroek gora egingo dute, maximoak 22-23 graduan errendituz.

Bihar. Giro lasaiarekin jarraituko dugu gaurkoan ere. Goizean hegomendebaldeko haizearekin hodeiak eta ostar-teak eta giro polita izango dugu. Arratsaldean, berriz, haizeak iparmendebaldean egingo du, eta zerua estaltzen joango da, azken orduetan giro estalia geratuko zaigularik. Hala ere, ez du euririk egingo. Tenperatura jaitsi eta 20-21 graduan joko du goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ORIA



BEILATOKIA
FUNERARIO

Usebal Ind., 12. 20400 Tolosa
943 69 75 79
www.funerariaoria.com



urrate

BERRI ERAIKUNTZAK S.L.

**Etxebizitzak
salgai
LIZARTZAN**

Bulegoa: Plazaola kalea z/g LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 51
urrateberri@urrate.eus